EUZKEL--ATALA

AZKOITI

Urte zarra ondo amaitutzia opa dizutek "Orixe"-ri ta euskel idazle guztieri, eta gañuntzeko euskotar irakurle guztieri. Baita datorren urte berria izan dedilla urte zoriontsu bat gure artian anaitasun maitekor batian.

"ALTZETA"-RI

Artu ditut zuk biali dizkidatzun "Ancutz" mendian ateratako argaizkiak. Poz pozik ikusi dituzte bertan izan ziran lagunak. Eskerrikasko.

IZPAR BELTZA

Ikurtun deunak artu eta gure Jaunak bereganatu du Larrañaga't. Juan Cruz erriko txinela G. B. Laguntzen diogu atsekabian bere emazte seme ta enparaueri.

NASKALDIA

Gabonak igarotzera etorri ta beren sendietara, agurtu ditugu Lutxanatik euskotar Soubies't. Jon Joseba, baita ikastetxietatik gure lagun Domekaren seme Iñaki eta Joseba eta Buenos Aires'tik Joaristi't. Imanol. Ongi etorria guztiori.

GEXORIK

Buruko-miñ gaitz gogorrak arturik, gaizki argitzen da gure lagun Larrea't Errapelen seme Sabin, amabost urteko mutikoa. Gure Jaunari eskatzen diogu osasun eman daiola.

LANGILLIEN KOPERATIBAK

Juan dan igandian euki zun batzar orokorra sei illabetekoa, ikusi ziran gora-berak eta aurrerako asmo berriak arturik aukeratu zan artezkari batza, lendakari Alberdi Igon, gizon zintzua bazkuna aurreratzen gogotik egiñgo duna. Koperatiba onek ditu 661 sendi bazkide eta beroi aurten emandio irabazia eguneko ameika. Asko da gero.

Gazteiz'tik bira bat egiñez emen agurtu degu gure lagun Goikoetxea't. Erramun oindigillea.

EGI-ALDE.

AZPEITI'TIK

URTE ZAR TA URTEBERRI

Euskel irakorle maitiak: Guziak du sortea ta azkena. Gauza bat bakarra da. Sorterik ez, ta azkenik ez duana ta Bera gauza guzien Egille JJaun da Jaungoikoa da. Urte zarrak ere ematen digu azkena. Bere gauz on da txar danakin bere anai zarren tokira dijuakigu.

Ongi etorri, Urteberri. Gauze txarrak utzi, on asko ekarri. Zoriontsuan zeure anaien alkian eseri zerutar onespen askoz bete EUZKADI bere zuzendari jaun moldezgile idazle ta irakorle danok bizi gaitian alkarren lagundian urte umore on ta pake donean. Ongi etorri, Urteberri.

ELEIZKINTZE BAT

Urteberri egunian Loiolako etxe donean izango da goizian erderaz ta arratsaldian euskeraz itzaldiak izango dira. Bertako txadona patxarazkua izan aren gizostez eztu zamartuko da. Gora Josutar onak.

NERE ONGILLEAI

Milloi bana esker zuben esku zabaltasunaz jai ederrak daramazkit Jaunari grazik zubegatik EUZKADI'n idaztea nere poz dana da, ta onegatik zuben ainbesteko esku zabaltasunaren diño ez ninzan. Mille esker ta Jaunak lagun deitela aurrera ere EUZKADI'n idazten agur.

URTE BETETZIAK

Illaren 22'ean Arrue't. Joseba apaiz onak izan zuan 23'ean bere arreba Mirentxuk eta Egaña't. Bitore anderetxu politak zuten. Artu itzazute nere milloi bana zorion ta zu apaiz on ta euskel Erakasle argia, Jaunak urte askoan gorde zaitzala Euskel-erriren onerako.

URREKO-ZOROA.

DONOSTIA

"EUSKAL ESNALEA"-REN ITZALDIA

Esnaola (G. B.)-ren omenez egindako itzaldi onekin, amaitu dira oraingoz, euskel itzaldi abek.

Olaizola jaunak, biotz barrendik itzak ateratzen zitualarik, Esnaola'z itz egin zuben.

Esnaola'k egindako lana, guziz goratu zuben gure Joseba onak.

Batez ere, eusko abestiak zabaltzen egin duben lana, oso maitekor ta eztitsu adierazi zigun.

Abeslariak oso egoki, eusko abestiak abesten.

Amaiean, Esnaola'ren argi-argazkia agerian zala, antzokiko argiak itzalita, Esnaola'ren "Loa, loa" abesten, neskatill abeslari askoren begiak, samintasunezko malkoz beteak zeuden; ta orla, oso itun, oso tamal, itzaldia amaitu zan. Txaloak benetan jo ziran.

DEUN TOMA EGUNEKO ANTZOKI JAIAK

Urtero bezela, antzokia beterik egin dira bi jai abek.

Lenengo aldiz antzeztutako, ta aurten saritutako bakarizketa itsaltzua, oso gogokua izan da. Bere egille Arozena't. Andoni, lasartear gazteak, txalo asko entzun zituben. Zorionak.

Ia datorren urtean, antzoki jai abek antzoki zarrean egiten diran.

TAMALA

Gure lagun ta euskelzale zintzoa dan, Ugartetxea't. Donata, eguarri jaiak pozik igarotzea bere etxera juanta, bere ama gaxorik, ikurton deunak artuta arkitu duela jakin degu.

Ainbat lasterren osasundu dezan otoitz jaunari.

EZKONTZAK

Aste ontan ezkondu da E. Etxeko bazkide Mendizabal gaztea. Baita ere laixter eskontzen dira bazkide lagun diran Ibero't. Sebasten ta Unzurrunzaga't. Pantzezka. Zorionak. ¿Baburrunak merkatu dituk ala?

KIRIKIÑO SARIA

1.415,50 laurleko sari ontarako, Eusko-Etxean bildu ditugu. Morkoxka polita.

Diru au, "Euskelzaleak" bazkunaren eskuetan utziditut.

Sari ontarako, txindia eman dezuten guziairi. Anei eskerrak, zuen euskelzaletasuna ongi azaldu dezute.

ZORION

Gabon zar ta urte berri on bat, idazle ta irakurle guziairi opa dizuet.

Baita nere "bertsuak" errendu dituzuen "Orixe", edo bere ordez kariairi ere (1).

¿"San Tomas'eko Periyan" erosi dezue aizkiro ori? ¡Arranua, bai zorrotza.

ATARRENE.

---

(1) Erren eta guzti, urrutitxo zijoazen Aizkora-bearra ba dago; sasi gogortxoa jeiki baitzaigu Euskal-atalean.

ERANDIO'TIK

Ill onen amabostarren egunian irasi zan Asuko Eusko-langillean Batzokia; jai politak egon ziran. Goxeko amar terdietan jaupa nagosia zeinetara notiñ andia etorri zan. An ziran Batzoki ortako lendakari idazlari diruzain ta beste artezkari guztiak be.

Baita Lexonako neure lagun andi diran batzuk euren artean "Bestea" idazlari bikaña, Uriarte't. Eusebi ta beste batzuk. Tamalez enaz gogoratzen, ainbet ziran ta. Baña eurekaitik esan bear dodana da, Eusko-langille sutsuak dirala benetan, zurok lango bazkideakaz eztago bildurik. ¿Ezta alan "Bestea"? Jaupa amaitu ta gero etorri ziran Batzokira danak batera beingo baten Getxoko txistulariak joaldi polit bat egiñ eban, berak ondo dakian lez, ordu batak inguruan agertu zan gure txaunburu jauna Batzokia onestuten. Aren ostean izan zan pelota-yoko ederra bertoko bazkide bi ta Lexona'ko beste bi; euren izen abizenak ziran Mezo't. Alpontsa ta Zarraga't. Balendin onek biok Lexonakoak ta Ortuondo't. Bedita ta Etxebarria't. Joseba. ¡Oneik bai mutillak! A zan jokoaldin ederra! Joko ori amaitu zan Asu'koak ogeta amar ta Lexona'koak ogeta zazpi. Mutillok txalo ugariak entzun zituezan.

Beriala bazkaitera joan giñan Llona't. Julenen jat-etxera. Zein ederto gertaute berak dakian lez egon zan. Bazkaria amaitu orduan izan zan izketaldia izanik egilleak Larrañaga't. Adolba ta Basterra't. Jon Joseba oso ezaunak aspaldion Eusko-langillen artean.

Ondo ta begi onagaz artu zan entzulean artean euron itz sutsua ta onuragarriak, erri ontan eztogu olango itzaldirik entzun ainbet urte ontan. Zorionak ba itzlari ori, ta bertoko artezkari ta agertu ziren bazkide guztiari batez-bere albo erritatik etorri zirenari.

Jarraitu ba zintzo zintzo arik eta erriko etxekoak azpiratu arte.

Zuri, Bake, bertoko idazlari zaren ordez, ¿ezin ipiñi leikez igande atsalde bat edo bien, izlari bat edo bi? Nik uste dot ondo izango leitikela bat euskeraz ta bestea erderaz. Onen gañian zuk deukozu itza.

* * *

Erri onetako Euskelzaleantzat jakin bearrekoa da auxe bere. "Jaungoiko-Zale"-ren ta euskerazko egutegiak salduten dagoz sei txakur andian Arteagoitia Anjeñin enen bizertokian ta Aretxabaleta't. Peli, Egaña't. Luken bizertokian

Or dagoz ba euskerazko egutegiok saltzen ta eztot uste geratuko danik euskelzalerik, eguntegi ori artu barik.

* * *

Ill onen 25'garrenean ta eguerdiko ordubatetan jayo dako geure lagun andi dan Etxebarria't. Dunixi'n emazteari seme eder bat. Datorren igandan bateatuko dan ipiñirik Dunixi euskerazko izen polita. Beren aitebitxi amabitxiak izunik Bilbao't. Eujeni ta Bilbao't. Izaye. Ondo aurkitzen dira aura ta mutikoa. Poztuten naz.

TXORI.

GETXO-NEGURI

ERIOTZEA

Ondarreta'n ilda Albenitz't. Bedita kistar on eta euskotar zintzoa. Asko tamaldu gara jaun on onen eriotzea gaitik. Atsekabean lagunduten dautset bere sendi guztiari, ta batez bere seme Danel ta Koikilli adiskide maiteari. Irakurlea, otoitz bat arren ain euskotar ona zanaren gogo alde. Goyan bego.

GABON JAIAK

Osasun bakean Jaunari eskarrak igaro doguz Gabon jaiak. Eguraldia be epel-epela izan da. Gabon gaberdiko jaupara notintza ederra joan ei da, ta ederto abestu, ta ainbatek Jaunartu ei eben Deun Iñaki txadonan.

Gabontzar on bat igaro ta urte barri zoriontsu bat opa dautsuet euskel-idazle ta irakurle danori.

Urte-barri egunean emakumek bete euki sakelak, gizoneskoari bezuza (erregalue) emoteko eguna dozue ba ta. Ezpabere Erregean egun ean zeurori be etxatzue ezer emongo. Ia ba zeurok zelan agertuten zarien Urte-barri egunean.

Baserrietan Txori-erri'n beintzat orain eztakit, baña neure ume aldian, oituten zan neska-mutikotxuak aterik-ate ibiltea urte barri batuten gitxi gora bera auxe abestuagaz:

Urte-barri, barri
txarri belarri
daukonak eztaukonari
Neuk eztaukot
eta neuri.

Alan ibilten gintzazan zorrotxu bategaz, eta etxe baten sagarrak, beste baten intxaurrak, andirengoan gaztañak eta alan beste gauza batzuk zorroa bete-bete egiten gendun eta ondo alai igaroten genduzan geure umaroko aldi gozoak.

IME ERRUBAGEAN EGUNA

Atzo ospatu eban geure Ama Eleizeak egun au. Ori zala ta ainbat notin izan zan txadonatan jaupa entzun ta eguneri dagokio zan txadonkizunetara.

Ime koskor batzuk ikusten ziran kalean be, zapi zarren bat dingilizka atzeko aldetik imintea kontuz ibilten esanari. Beste bateri edozein gauza jausi yakola esanaz, ta beste olango txerrenkiekaz ume koskorrak pozik beste batzun, lepotik barre egiteko. Neuri be, batek eskatu eustan ogerleko bat mesedez, ta gero barre eginaz "iñusenteak" ordainduko dauztiela esaustan. Beti gizona barre egiteko ziyo billa.

TROKATIKO.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Eguen arratsaldian agurtau genduzan emen "Aberri", "Amagoya" ta "Gogorra" euzkel-idazle bizkor eta euzkeltzale on-onak.

—Billafranka'tik etorri zan Sakramentu Deunaren Simeon Aita karmeldarra.

—Elgeta'ra yuan zan Dolara't. Koldobika yauna.

—Eguenian egon zan Lamikiz't. Albontsa yauna.

—Bilbo'tik etorri zan Zabarte't. Bedite.

—Santurtze'tik Kapanaga't. Baldomer.

—Algorta'tik Magunazelaya't. Yoseba ta emaztia.

—Logroño'ra yuan ziran Gabon-yaiyak igaroten Arana't. Gabin eta emaztia.

—Dima'ra yuan ziran Sarobe't. Silbester eta Domeka anaiyak.

YAIYOKUNDE EGUNA

Egun aundi orretan, goizian emon ziran yaupaetan lagun askok yaunartu eban. Zortziretan neskato-mutikuek eureen batzarreko yaunartzia euki eben.

EGURALDIYA

Aldi-onetarako naikue ederra dago. Lengo astian Ollentziyo ta Mugarra aldian edur apur baten zuritasuna ikusten zan; baña beriala kendu zan, eta aste-onetan epel samar dago.

ETXIA ERRE ETZANIAN...

Gabon illuntziyan Ortuoste't. Bitor bizi dan Markomingo etxian sua eguala-ta, zaratia ta zarraparria ugeri izan zan. Kanpai otsera lagunik asko batu zan etxe inguruan, eta laster eta bizkor itzali edo amatau eben su guztiya.

Itxuraz, sua tximiñan asi zan eta etxekuak oartu baño len, gela bateko zurunbil bat be garrak artuta eguan.

Eskerrak arin ibili ziralako, bestela gau atako ego-aize indartsuak suari lagunduta, laster etxe ta inguruok erreko ziran.

GEIXORIK

Alan dago, Urekin'go Ertzilla't. Estepan gizona, erriko epaikariya. Osasuna opa.

GABON-MUTILLAK

Gabon eta aurregunian erdu ziran eureen etxeetara erritik at (kanpuan) lanian ibili diran mutil morroskuak.

Gabon, urtian beiñ baño eztala izaten-eta, makallau ta besigu ederrak lepuan dingilizka zitueezala alai ta pozik etxeratu zirian.

GABON-YAIYAK

Eguraldi-on eta epel samarrakaz, Gabon-yaiyak ederto igaro dira. Osasun-bakez zer yan eta zer eran zuri naiz baltz erri-onetan beintzat, eztogu palta izan.

Gabon gabian apari gozo ta ederra yan ondoren, sendi askotan, oi dan lez ipuña, abestiya ta zaratia ugeri izan zan.

Aldegoiyeneko basetxe baten, auzo ta aizkide amalau lagun batu zirian, danak batera alkarregaz brizkan yokatzeko asmuan. Ainbeste lagunentzat karta batzuk gitxi zirala-ta, bitsukaz yokatu biarra izan eben. ¡Eta ekiñaldi garratza egin be! Ekiñago ta gurago, berbaak-berba ta orduak-ordu, goizeko seirak urte etzirian gelditu.

Azkenez, egun-sentiya baño len yokolari guztiyak bitz biko txokolate gozo-gozuaz ase ta bete-bete eginda sekuleko umorian etxeratu zirian.

Gau-lenian eta goizaldian errondari gazte batzuen abesti, zarata ta orroiak entzuten zirian. Euren artian artazi-zorrotzallen bat be ibili zala edo...

ZORIYONAK

Gabonzar eta Urtebarriz zoriyon andi ta ugariyak opa dautsedaz euzkel-idazle ta irakurle guztiyai; batez be Orixe yaunari.

MAÑARIKO.

Grimm Anayen Ipuñak "Legoaldi"-rena

Idazti txanbeliña; berogetaka irudi politak; euskera erritar-gozogarbia; umeentzat irakurgairik ameskariena; 325 orrialdedun idaztia; iru laurleko. Salgoi idaztitegietan eta Begoña'ko Karmelo'n.

MENDATA

GOGO IÑARKUNETATIK ETXERA

Illaren 22'an etorri giñan Durango'tik Mendata'ra gogo iñarkuek egiten egon giñan aldria burtariñ bigaz. Baita ederto etorri ere Jaungoikoari eskerrak, Zarragoikoetxea't. Santos buru dogule.

JUAN ETORRIAK

Emen aurkitzen dire Gazteiz'tik etorrita apaizgintzarako ikasten dabizan ikasliak Baita emen aurkitzen dire Landa't. Pelipa beren senarra eta seme alabakaz Landa't. Ilari be bai gudaritzatik etorrita. Zorionak

OLA... OLA... OLA "KUKUPRAZAR"

Ondo etorria, ¿nur egon az orain arte mutil? Goiztar asi az kuku zarataka, baña jarraitu. Ordu onien etorriko dok artoa ereiteko sasoia be baña idazkian diñon moduan ez egik bieldu "antigoala" ta orretariko erdera mordollorik; osteraiñtzien guri iseka eta parreka asiko dozak.

ABESTI POLITAK

Gabon jai onetan abesti politak abestuten dabez eleiz onetan Josu Kistoren jaiotzako abesti politak. Eskerrak erri onetako apaiz jaunari jarraitu aurrera be euskeraz abestijak eleizarako iminten.

BASOLUZEKO ERBI NABARRA.

ZEANURI

ELEZKIZUNAK

Gabon egunek pozezko egunak dirala ta lagun asko izanda etxeratu direnak batetik da bestetik.

Andra Mari elexa nagosira etorri da erri guztia poza agertuten Ume Jesu'seri da txiki ta andi mun egiten.

Abestiak, Gabon-abesti politak abestu dira euskeraz, da polito ipiñi ta urtero lez ume Josu'ren jayotza.

Arratsaldean "Natibitite" egunean le elexea bete egin zan da bezperan abestu ziran bakotxak liburutik eguneri yatorkozanak oso itzalkiro.

Undurraga'n: Deun Estepan egunian kanpai barrien oneskunde edo bendeziñoa. Amarretan egon zan meza abestua abadegeyak abestuta. Aldekoa Jon jauna artezkari dabela jaupa emollea parroko jauna (aurreratxoago onetsi eban yoala) da Etxezarraga't. Julen ta Angoitia't. Jaben'ek lagunduta.

Txonitza oso ederto Uriarte't. Kepa bertoko abadeak.

Bertan batu zan elezkixunera lagun asko. Leku agirien egozan Zuluaga't. Jon Zamudio'ko txaunburu ta bere arreba Luzi kanpai ordaindu daben llobak. Zuluaga't. Prantziko Bitor auron osaba 86 urte dabezana da beronen emazte Abasolo Magdalena (G. B.) izenean dauko yoalak euskeraz idazkuna. Baita 88 urteko Zuluaga't. Bernardino euron sendikoa an egon zan zintzo 1.200 laurleko balioa dauko kanpaiak da lendik be Kustodie eurok ordaindu eben.

Zorionak ongille onoi.

NASKALDIJA

Bilbao't. Kepa euskeltzalea emen agurtu dogu.

Baita idazti euskerazkoak erosten etorri da Zuluaga't. Margarite maistra irakasle zolia.

Gorbei'era egon dabe gaur Barazar'era bilbelian yoan da Bilbotar gazte pillobat Astorki ta Azkue jaunagaz.

Donostia'tik bilbelian etorri ta emen izan da Urretxa't. Iñaki.

EZKON-DEYAK

Goiko elexan egunotan deitu direnak.

Murgoitio Ipiñeko mutilla Goikouri Nikolasa Asterrikoagaz. Beobide Jone Juana Larroskin'enekoa Arana Bingen Bedie'koagaz.

Zorionak

ESPATADANTZARIAK POZIK

Laister ekarriko dautsiezalata ikurrin da ezpata barriak pozik aurkitzen dira mutillok.

GABON ZAR EGUNIAN

Emengo gau-gurtzallean urtero lez aukodabe elezkixuna.

—Emengo albaiterea abel-osalaria bere errire doya. Barrie bearko emen.

Urte amai ona, da asiera bardin dopatsuek, irakurle ta idazle guztioi.

BASERRITAR BAT.

GIZON ZARPAILLA

Malmuzkeri polit bat eta aren kaltiazko beste politago bat.

Pildiskidun soñekuaz yantziriko gizona, zumardiko aulki baten nasai-nasai yesarrita, zugatz adapuruetan aiziak ataraten zituzan soñuen adi egunan. Ba-irudiyon zugatzak, bakotxak eresi bedegarra ebela, ta gogora etorkiyozan beñola Bournemouth'en, itxasaldian, lerrai entzuniko intziri urrumaratsuak; Australia'n, asagoko aldi baten, *eukalitusai* aditu izan eutsezan abarrots barallariyak. Bere inguruko zumarrak, barriz, amesetan egin oi diran lako zungurruetan eragoien une atan... Burua, lokatu bai'litzayon, bular ganera yausten txita, lokuluskan asi zan.

Zumardi inguruko Marble Arch aldetik gizon lerden bat etorren beraganantz. Izki-erdiren batek egotziriko argi-uztayak inguratzen ebanian, naiko ondo ikusi eitekian urrunetara be gizon onen tayua. Antzokirako-ta oi diran gau-soñeko dotoriaz yantzita eguan, eta sorbaldetatik atzerantz eskegita eukan gainyantzi zabal baltzak sabu egiten eutsan ibillieran. Ba-eguan zumardiyan yesarleku utsik asko, baña gizon zarpaillaren yesarleku beratan yesarri zan daunpada batez, gorputzari yausten itxita.

Gizon zarpaillak, yesarrikera zaratatsu onek lokulustatik iratzartuta, etorri barriyak txokor eder bateri uarrez ataraten eutsan kee morduaren lurrin gozua asnartzeko, zurtzilluak be eten biarrian zabaldu zituzan.

—¡Au da gauaren ederra! —esan eban ondo yantzirikuak, berbiari durunda dotoria eragiñaz.

—Ederra... ¡noonontzat bai! —erantzun eutsan bestiak, lurpetiko abotsaz.

Zaldunak, barriro be txokorraren keepilla usain gozoduna aizetarantz yaurtiyaz, ba-diño:

—¡Maitegarrikeri ipuñetarako bere-biziko gaba!

Pildriskidun gizona barreka asi yakon, baña barre mingotzaz..

—Bai, ene gizona; maitasunak, billa ibillita be, ezin idoro eukian gau maitagarri onetan baño abagadune obarik! —erraikiyon zaldunak. Eta bat-batian, zarpaillagana biurturik, ba-ditauntso: —Baña, alperrik eztagidan iñardu, esan egidazu: ¿iñoiz maite izan al dozu zuk?

—¡Kar, kar, kar...! —erantzun eutsan bestiak, barriari eutsin ezinda—. ¿Nik iñoiz maite izan? ¡Otu be olako itaunik ni lango morroi bateri egitia!

Zaldunak berak be, pildriskidunaren urteikera oneri barre egin eutsan; barre alayaz, baña zarata barik.

—Nik bai—ba-erraikiyon zaldunak—. Nik, egiya esan, uri onetan danik emakume maitagarriyena dot maite.

—¿Uri onetan? —yardetsi eutsan zarpaillak. —¡Tira; eztozu orraitiño orren arrokeri andirik esan!

—Entzun, ene gizona—ba-darantzutso zaldunak erre-erre eginda—. Nik maite dodan emakumia baizen zoragarririk, uri onetan ezeze, ludi osuan be eztago. Eta aren barri zerbait yakin dagizun, zagokidaz adi. Antzoki bateko "izarra" da. Baña ez uste izan bada-ezpadako emakume antzezleri geyenen ntzekua danik. Ez. Eztago arentzat ez yingirarik, ez apari yardunik, ez goizaldetako yolasik. Antzezkizuna bein amaitu ezkero, artez-artez yuan oi da etxera, ta gelako atiari giltza emonda ezta iñora urteten. Ezin egin izan deutsat oindiño berbarik. Geltzalliakaz eztau artu-emonik izan gura. Nire eskutitzak eta bezuzak ikutu be egin barik biurtuten deustaz atzera. Iñoiz lora-txortarik bialdu badagiyot, gexotegiyetara igorri oi dituz. Baña alan-da-be, egunian baño egunian maitiago dot. Gabian-gabian egoten nayako antzokiko yesarleku batian, urre samar, antzekizunian izaten dauan yardunaren adi, begi-belarri eginda. Baña eztot ezetariko aurrerakuntzarik egiten. Ez-yaramon egiten deust. Non bizi dan yakinda deitu be egin dot aren atian. Alperrik. Neskamia bialdu eustan esaten, gabera ezkero etxian etxekuak, ta Yaungoikuak gabon degigula guztiyoi

Eta atzamarraz erakutsirik zumardi beste aldian zerurantz igo nairik lez eguan etxe bat —zomorrua irudiyan etxe zuri, andi, estu bat— ba-diño:

—Ortxe, etxe orretan bizi da; bigarren oñeko bizitza baten. Eta emen nayagoko antzokitik noiz urtengo dauan begira, ezaupidia gaur berton nai ta nai ez egiteko asmuaz.

Au esatian txokorra yaurti eban. Gure pildriskidun gizona, txokorragaz batian biziya bai'leyuakiyon, bat-batian yagi ta arrapalada batez atrapata, txokor azkenari erakusmeneko tenkadak egiten biurtu zan yesarlekura.

—¿Beste bein orixe asmo ori izan zenduala eztozu esan, ba?—uartu eutsan zaldunari.

—Bai —darantzutso onek—, baña oraingotan neure egipidetxua daukat. Orraitiño, nire asmo au betetuteko, iñoren laguntzia biar dot eta...

—¿Nigana yo gura dozu, ezta?

—Bai; zeugana. ¿*Libra* bategaz naikua al dozu?

—Libra bategaitik gauza asko egin neikez —erantzun eutsan gizon zarpaillak astiro-astiro. —Ogeigaitik, ostera, edozein diabrukeri be bai.

—Tira, ba; ogei libra emongo deutsudaz alogertzat. Ona emen nire asmua. Bizitza aretako garbitasunak egiten dituzan andria guztiz dot lagun andi —"zerezko" labangarriya emon ezkero, yakiña; —eta aren etxeko sokonduen barri neuriarenak baizen ondo dakidaz. Diru-kutxian urrezko ta arri-ederrezko ainbat marra-bitxi ta ditu dagoz gordeta; edozein lapurrentzat bere biziko maukia. Baña eztot zugandik besterik gura, nire maitagarriya etxeratu daitenian diru-kutxia dagon gelan egon zaitezala baño. Zu, lapur antzera, diru-kutxa onduan aurkitu zaikezanian, diadarrez asiko da anderañua, ¡yakiña!, sokorru-eske, eta orduan ni...

—Bai, ba-dakit; orduan zuk zeure burua gizagu[illegible] egiteko abagune txito eraskua izango dozu.

Vasco, amante del euzkera...

EUZKADI, con la publicación del Diccionario Castellano-Vasco y Vasco-Castellano, del reverendo Padre Arbelaitz, *que se dará gratuitamente por muchos miles de ejemplares*, agota los recursos que un reducido número de vascos de buena voluntad le han proporcionado para la publicación de obras en euzkera.

También tú puedes participar en esta obra de fomento y cultivo de la lengua de tus padres, aportando tu donativo pequeño o grande, expresión de tu buen deseo.

En la Administración de este diario se admiten donativos en forma de suscripción mensual, trimestral, anual o de una sola vez, como convenga a tus medios económicos.

¡Que no falte a nuestra llamada ningún vasco amante de su pueblo...!

—Orixe! Artez ulertu deustazu!

—Baña, zelan sartu naiteke ni gelan?

—Guztiz errez, gizona. Etxia arkolauten deutson andra aldirañokuak, orpeiguzkin azpiyan isten dau giltza, illuntzian arrikua eginda urteten danian.

—¿Eta otseiñik ez al dago?

—Garaurik be ez. Ni, anderañuaren garraiziyak entzunda gelan sartu naitenian, burruka paristia egingo dogu biyok, baña azkenian igesi egiten itxiko deutsut. Kalian itxaron ziñeist gero.

—Ondo dago.

Zaldunak eskuturrian eban erloyuan ikusi eban ordua.

Obeto egingo dogu daguaneko arantz abiyau—esan eban zutunik yarrita. —Erdu neugaz. —Eta txantxardun gizona beso batetik oratuta, eruan eban zaldunak ene alogereko barri au arbolapietatik bedartzian barruna. Ezeben urrats askorik egin eta zerbaitek yo eban pildriskidun gizona oin batian. Lotu be egingo zan zer ete zan ikusteko, baña maitaliak dandarrez eroian eta ezin eitekian lotu.

Zumardiko ate urrundu baten onduan geldi-une bat egin eben, zaldunak azkeneko uarrak emon gura eutsozalako gizon zarpaillari.

—¡Ez egizu okerreko biderik artu gero! —esan eutsan—. Aurreko etxe orretan, bigarren oñeko seigarren bizitzan bizi da. Eztago atezaiñik. Gabeko ordueton ezta zurguetan be argi andirik izaten, eta biarba lagunik eb eztozu idoroko. Bizitzan sartu zaitezanian, ezkerretara dagon lenengo gelan aurkituko dozu marrak-eta gordeta dagozan kutxa sendua. Zagoz geldi gela atan anderañua bertan sartzen nabaitu dagizun artian. Orduan lasterrari erazo zakiyoz ta iges egiteko alegiñak egizuz. Beste guztiya neure gain.

Gizon zarpailla, kalia ziar igarota, zaldunak erakutsiriko etxian sartu zan. Igo zan zurguaz gora, iñor aurkitu barik. Orpeiguzkin azpiyan idoro eban giltza; sartu zan bizitzan ta itxi eban atia. Argiya biztu ta beinguan begiztatu eban kutxa sendua eguan gelako atia.

—Ogei libra—egin eban bere arterako; —ogei libra tentelkeri au egitiarren. ¡Ez ba! Naiz burutik eginda yaguala, naiz adarra sartu gura yaustaala, bada-ezpadan enok urtengo emetik esku-utsik. Eta kalera urteten isten ba'yeustak, enayauk topako kale-erdiyan beren begira.

Idigi eban atia, biztu argia, ta gela laukitu bat aurkitu eban; keiartuteko oi diran gelaen antzekua, aritzezko erredixez ondo ornidurikua. Ez eguan oituta etxe dotorietan ibilten, baña bakan eritxi eutsan alako gelia idorotia anderaño baten etxian. Maitxu baten ganian txokor kutxa bat eguan. Ormatik eskegita baldatxu baten ainbat pipa egozan; gizonezkua keiartuteko erabilten dituezan pipak. ¡Arrayo gorri bat! ¿Erratu egin ete zan bizilekuaz? ¿Okerreko etxe oñian sartu ete zan, ba?

¡Danba!!! Oldozkuneon iñarduala atia itxi eutsen bere atzetik, eta gizon zarpaillak, arriturik, orpoganietan bira osua egin eban.

* * *

¿Zer yazo zan? Gizon zarpailla etxeko atadiyan sartu zanian, zaldunak atzetik yarraitu eutsan ixillian, eta nabaitu eban zurguaz gora yuaten eta seigarren bizitzako atia idigiten eta isten. Zarata barik igo zan bera be bigarren oñera ta sakeletik giltz bat atarata, ixil-ixilik eta ardura andiz idigi eban atia.

Sarturik, ba, bera be seigarren bizitzan, aterabideko azpikoyal ganian atsapatsaka eginda, keiartuteko gelako atetik kiku egin eban. Bere alogerekua —gizon zarpailla— zutunik eguan barruan, atzeikera aterantz. Kisketari oratu ta danbada batez bat-batian atia itxi ta giltza emon eutsan.

Eta yakelara yuanik, urrutizkin tramankulua artu ta Ertzaindokiyari berba egiteko ariya eskatu eban.

—Viney Nagusiya nozu ni —esan eutsan Ertzaindokitik erantzun eutsan Ertzain-Uarlariyari—. Giza-erailtze bat egin ete danen nago. Bai. Emen, neure etxian. Bialdu egidazuz bospasei lagun ointxe berton

Eta etxeko atadiyan batera-bestera ebillen ertzaiñak agertu ziran artian.

—Nire lagun Temperley Nagusiya eta biyok alkarregaz urten gara illuntzion, eta antzokitik etxeratzerakuan, esan deutsat lagunari nire bizilekura igoteko, zerbait edari gozo artuko dogula ta, —asi yakon esaten Ertzain-Uarlariyari, au ta beste ertzain batzuk geruago-garrenian etxian agertu ziranian. —Badiñotsat keiartuteko gelan sartuteko, ni eskatzera ur pizka baten billa nuan bitartian; ta eskatzian nagola ba-dantzut garraizi bat, eta gerotxuago iskillu dunpada bat. Ba-nator ariñeketan laguna itxi neban lekura, ta non ikusten dodan Temperley Nagusiya luze beianganian illotzik eta itxura txarreko gizon bat zutunik bere onduan, eskuan biragotz bat ebala. Bat-batian atia giltzaz itxi deutsat ta zuri deitu deutsut urrutizkiñez.

Ertzain-Uarlariya —arpegi biribil, begi urdin ta bigote sarratudun gizon galanta —beinguan asi zan lanian. Keiartzeko gelako atia zabalduta, mortxokadan sartu ziran ertzain guztiyak eta eldu eben gure gizon zarpailla. Beianganian illotzik eguan Temperley Nagusiya Alkondara zuriyan eta bular ganian eukan zulotxu keetau batek argiro azaltzen eban zelako eriyotziaz il zan.

—¡Billatu egizue biragotza!—agindu eban Uarlariyak.

Orduan, gizon zarpaillak berba egin gura ebala adierazo eban.

—Eztozue emen idoroko —esan eban. —Ez-ta leyopian be —Uarlariyak berietariko gizon bateri kalian billatu egiyala agindu eutsanian.

—¡Sakelian dauko, aurki! —egin eban urduri-urduri Viney Nagusiyak— ¡Arakatu sakelak!

—Ez yauna, ez; sakelian be ez —yardetsi eutsan gizon zarpaillak. —¡Zuk bai; sakelian egin deustazu zuk sartu, zumardi ziar iya dandarrez atzipez ona ekarri nozunian! ¡Baña eztozu ikusi au... au eztozu uartu...!—iñuan irribarreka. Ta eskuak yake-sakeletan sarturik, garbi-garbiyan atara zituzan yakepetik, sakelak bete-beteko zulua eukotselako ta yakiak barruko miesarik ez eukotsalako.

Eta ara alik onduen asmauriko malmuzkeriya be zelan deuseztu leikian edozein ezerezkeri batek. Captain Viney, edo gura ba-dozue, gure asikerako zaldun maitatia, gizon zarpaillak sakeletan zuluak euki legizala ez otutiak galdu eban, eta gizon zarpaillak, sakel zuluai esker, ezeban leporatu Viney Nagusiyak egiñiko erailtzia.

OTXOLUA.

(Ingelanderatik euzkeralduta)

* * *

Zarpail; pildriskidun; txantxardun=ha.
Zarpail, pildriskidun, txantxardun: haraposo ;*Zumardi*, parque; *Malmuzkeri*, estratagema; *Adapuru*, copa de árbol; *Bedegar*, propio, especial! *Ler*, pino; *Barallari*, bullicioso; *Lokuluska*, dar cabezadas de sueño; "*Izki-erdi*", foco; *Egotzi*, arrojar, proyectar; *Gainyantzi*, capa; *Sabu*, balanceo; *Uarrez*, adrede; "*Izarra*", estrella, primera figura de teatro; *Antzezlari*, artista de teatro; *Yingira*, tertulia de mala nota; *Geltzalle*, admirador; *Bezuza*, regalo; *Igorri*, enviar; *Zomorro*, fantasma; *Bizitza*, vivienda, en casa de departamentos; *Txokor-azken*, colilla de puro; *Tenkada*, chupada; *Marra*, joya; *Mauka*, ganga; *Arkolau*, arreglar; *Aldirañoko*, interino-a; *Orpeizguzkin*, felpudo, palleta; *Burrukaparista*, simulación de pelea; *Urrats*, paso; *Zurgu*, escalera; *Kutxa sendo*, caja de valores, caja fuerte; *Keiartzeko gela*, fumador (habit.); *Erredis*, mueble; "*Aterabide*", pasillo, carrejo; *Azpikoyal*, alfombra; *Atsapatsaka-egin*, deslizarse; *Atzeikera*, de espaldas; *Yakela*, comedor; "*Nagusi*", capitán; "*Ertzain-Uarlari*", inspector de policía; *Giza-erailtze*, asesinato; *Atadi*, estíbulo, "hall"; *Ertzaindoki*, puesto de policía; *Illotz*, cadáver; "*Biragotz*", revólver; *Yardetsi*, responder; *Urduri*, nervioso; *Barruko miesa*, forro; *Urrutizkin tramankulo*, aparato de teléfono.

Kulatz-biartietan dagozan itz barriyak neuk asmaurikuak dira. Ezer eztabela baliyo entzunda be enaiz asarratuko. *Otx.*

EIZA - IZTIA EDO ABERE TA PIZTIAK

Lezo'ko A. Agurgarria'rena Euskera irakasten dan ikastoletarako irakurgai polita. Bi laurleko'ren ordez. Amar ale baño geiago eskatu ezketiño, merkeago dira.

EUZKADI'ren banakolean salgei.

GOBIERNO CIVIL

La diaria jornada

Don Manuel Rueda, cónsul de Bolivia, visitó al gobernador para decirle que en junta general del Cuerpo consular se acordó hacer constar el agradecimiento hacia el mismo por las atenciones que siempre dispensó a este Cuerpo con un banquete en La Bilbaína en la fecha del 23 de enero, fiesta onomástica del rey.

El gobernador aceptó, agradecido.

El gobernador ha dado orden al Cuerpo de Vigilancia para que mire en las tiendas de juguetes y prohiba la venta de explosivos y detonaciones, que produjeron molestias al vecindario en Nochebuena y podían repetirse en Nochevieja, y no den lugar a estos desafueros.

Habiendo leído el gobernador en "La Gaceta" que hay deficiencia de luz en algún cinematógrafo, ha dado cuenta de ello al inspector general, que es secretario de la Junta de Espectáculos, para que se eviten estas deficiencias.

Se ha remitido a la Presidencia del Consejo de ministros (Asuntos Exteriores) un escrito del vecino de esta villa Manuel Merino Berri, interesando saber los bienes que haya dejado su padre, Froilán Merino, que dice falleció en México.

El cabello es una planta

Si queremos tener buenas plantas es preciso cuidarlas. Con mayor motivo el cabello requiere cuidados especiales para mantenerlo sano y abundante.

El Capilar Americano es un regenerador del cuero cabelludo. Pídase en perfumerías y droguerías de España y América.

CAPILAR AMERICANO

Precio Pesetas 6'50

Perfumería ICART Barcelona

URALITA

Gran Vía, 5, 1.º—Teléfono 11078.

CEMENTO PORTLAND

"ZIURRENA, S. A."

(EL MAS SEGURO)

Propiedad de la Sdad. marca "Cangrejo".
FUEROS, 2. :-: TELEFONO 12.2[illegible]3

IDIOMAS

INGLES - FRANCES - ALEMAN

Lecciones-Traducciones
CLASES NOCTURNAS: 15 ptas. MES
Academia MACUA. Contabilidad
Santa María, 1.

Patatas "RAGIS"

Alemanas, para siembra, llegadas en el vapor "Desdemona".

Las patatas RAGIS son con las que más producción obtienen los agricultores.

Unica Casa importadora de las patatas RAGIS para estas provincias.

SANTIAGO FERNANDEZ
Lamana, 5, almacén.—BILBAO